

<p><b>2020KO URRIAREN 29AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.</b></p> <p>=====</p> <p><u>BERTARATUAK</u></p> <p><u>ALKATE DIHARDUENA</u></p>	<p><b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 29 DE OCTUBRE DE 2020.</b></p> <p>=====</p> <p><u>ASISTENTES</u></p> <p><u>ALCALDESA ACCIDENTAL</u></p>
---	--

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)

<p><u>ALKATEORDEAK</u></p>	<p><u>VICEALCALDESAS</u> <u>Y</u> <u>VICEALCALDE</u></p>
----------------------------	--

Carmen Diaz Perez (PSE-EE)  
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)  
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

<p><u>ZINEGOTZIAK</u></p>	<p><u>CONCEJALES</u></p>
---------------------------	--------------------------

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)  
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).  
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).  
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)  
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)  
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)  
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)  
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).  
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).  
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)  
Alicia González Del Valle Francos (PP)  
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)  
Nerea Guijarrubia Garzia (EH BILDU).  
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)  
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)  
Mikel Bildosola Agirregomezkorta (EH BILDU)  
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)  
Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)  
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)  
Carolina Uribe de la Espriella (E. PODEMOS)

**IDAZKARI NAGUSIA**

**SECRETARIO GENERAL**

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletzeko Bilkura Aretoan eta Alkateordea Keltse Eiguren Alberdi andrea dela, egun horretako goizeko bederatzia eta erdietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontuhartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Vicealcaldesa, Keltse Eiguren Alberdi, se reunió a las nueve treinta horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkateordeak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

La Vicealcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**EBAZPEN ATALA**

**PARTE RESOLUTIVA**

**121.- GETXOKO UDALBALTZAK 2020KO IRAILAREN 29AN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**121.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 29 DE SEPTIEMBRE DE 2020.**

2020ko irailaren 29an Getxoko Udalbaltzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Se aprueba por unanimidad el acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 29 de septiembre 2020.

**122.- MIKEL BILDOSOLA AGIRREGOMEZKORTA JAUNA EH BILDU TALDEAREN ALDETIK UDAL HONETAKO ZINEGOTZI KARGUAZ JABEARAZTEA ETA UDAL-ORGANOEI ATXIKITXEKO PROPOSAMENA ETA TALDEKO BOZERAMAILE IZENDAPENAREN**

**122.- TOMA DE POSESIÓN DEL CARGO DE CONCEJAL POR EH BILDU DE DON MIKEL BILDOSOLA AGIRREGOMEZKORTA Y PROPUESTA DE ADSCRIPCIÓN A DIFERENTES ÓRGANOS MUNICIPALES Y DACIÓN DE**

## BERRI EMATEA.

Alkateak Mikel Bildosola Agirregomezkortari dei egin dio, eta bertaratu egin da Getxoko Udaleko zinegotzi kargua hartzeko.

Idazkari nagusiak jakinarazi duenez, ondasunen eta interesen aitortpena bete du, eta 1979ko apirilaren 5eko Errege Dekretuan xedatutakoa beteko du, honako hau galdetuz:

Zin dagizu, edo agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohorearen izenean, Getxoko udaleko zinegotzi arduraren eginbeharrak zintzoki beteko dituzula, Erregeari leial izanik, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula, Estatuko funtsezko araua delako? Mikel Bildosola Agirregomezkortak erantzun du:

“Legeak behartuta, hitza ematen dut”.

Alkateak ongietorria eman dio Udalbatza guztiaren izenean.

Ondoren, Alkatetzak proposatuta aho batez honako hau erabaki da:

1.- Udal honetako zinegotzi karguaz Mikel Bildosola Agirregomezkorta jauna jabearaztea, EH Bildu-koa bera.

2.- Mikel Bildosola Agirregomezkorta jauna informazio batzordeetan eta tokiko erakunde autonomoen artezkaritza kontseiluetan sartuko da Cristina Zamora Chuquiguanga andrearen ordeaz:

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordea: titular bezala

## CUENTA DE DESIGNACIÓN DE PORTAVOZ DEL GRUPO.

La Alcaldesa llama a Mikel Bildosola Agirregomezkorta que se persona para tomar posesión del cargo de concejala del Ayuntamiento de Getxo.

El Secretario General informa que ha cumplimentado la declaración de bienes e intereses y procede a cumplimentar lo dispuesto en el Real Decreto de 5 de abril de 1.979, preguntando:

¿Jura o promete por su conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejales del Ayuntamiento de Getxo con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?, a lo que Mikel Bildosola Agirregomezkorta contesta:

“Por imperativo legal, prometo”.

La Alcaldesa le da la bienvenida en nombre de toda la corporación.

A continuación, a propuesta de la Alcaldía-Presidencia por unanimidad se acuerda:

1.- Dar posesión del cargo de Concejales de este Ayuntamiento a don Mikel Bildosola Agirregomezkorta perteneciente a EH Bildu.

2.- Adscribir a don Mikel Bildosola Agirregomezkorta a las siguientes Comisiones Informativas y Consejos Rectores de los Organismos Autónomos Locales en sustitución de doña Cristina Zamora Chuquiguanga.

Comisión Informativa de Organización y Cuentas: como titular.

Lurraldeko Informazio Batzordea:  
titular bezala.

Comisión Informativa de  
Territorio: como titular.

Herritargoko Informazio  
Batzordea: ordezko bezala.

Comisión Informativa de  
Ciudadanía: como suplente.

Gizarte kohesiorako Informazio  
Batzordea: ordezko bezala.

Comisión Informativa de  
Cohesión Social: como suplente.

Jesusen Bihotzaren Udal  
Egoitzako tokiko erakunde  
autonomoaren Artekaritza Kontseilua:  
titular bezala.

Consejo Rector O.A.L. Residencia  
Municipal Sagrado Corazón de Jesús:  
como titular.

Kultur etxeko tokiko erakunde  
autonomoaren Artekaritza Kontseilua:  
ordezko bezala.

Consejo Rector O.A.L. Aula de  
Cultura: como suplente.

Musika eskolako tokiko erakunde  
autonomoaren Artekaritza Kontseilua:  
titular bezala.

Consejo Rector O.A.L. Escuela de  
Música: como titular.

Getxo Kirolak tokiko erakunde  
autonomoaren Artekaritza Kontseilua:  
ordezko bezala.

Consejo Rector O.A.L. Getxo  
Kirolak: como suplente.

3.- Mikel Bildosola Agirregomezkorta  
jauna EH Bildu udal taldeko  
bozeramaile izendatu dutela jakitea.

3.- Quedar enterados de la designación  
de don Mikel Bildosola  
Agirregomezkorta como portavoz del  
grupo municipal EH Bildu.

## PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Keltse Eiguren

### BOZKETA/VOTACIÓN

Aho batez / Unanimidad

### ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

123.- MANUEL GAINZA  
APARKALEKUA  
ERABILTZEAGATIKO PREZIO  
PUBLIKOAK ONARTZEA.

Antolakuntza eta Kontuetako  
Informazio Batzordeak proposatuta,  
gehiengoz ondorengo erabaki da:

### ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

123.- APROBACIÓN DE LOS  
PRECIOS PÚBLICOS POR LA  
UTILIZACIÓN DEL  
APARCAMIENTO MANUEL  
GAINZA.

A propuesta de la Comisión  
Informativa de Organización y Cuentas  
por mayoría se acuerda:

**LEHENENGOA:** Manuel Gainza aparkalekuan gauzatuko diren zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak ezarriko dira; honako hauek izango dira zenbatekoak:

PREZIO PUBLIKOAK,  
TXANDAKETA:

- 09:30etik 20:00etara, ohiko tarifa, 0,02 eurokoa minutuko (BEZa barne), 0,05 euroko multiploetan.
- 00:00etatik 09:30era eta 20:00etatik 23:59ra, tarifa murriztua, 0,00625 eurokoa minutuko (BEZa barne), 0,05 euroko multiploetan.

Egunean, gehienez, 17,65 euro kobratuko dira (BEZa barne).

PREZIO PUBLIKOAK, ABONUAK:

- Egoiliarrentzako hileko abonatuaren prezio publikoa, -3 solairuan, 84,7 eurokoa hilean (BEZa barne).
- Eguneko abonatuaren prezio publikoa (08:00etatik 20:00etara), txandatze-araubidean, 181,5 eurokoa hilean (BEZa barne).
- Gaueko abonatuaren prezio publikoa (20:00etatik 08:00etara), txandatze-araubidean, 127,05 eurokoa hilean (BEZa barne).
- Goizetako abonatuaren prezio publikoa (08:00etatik 15:00etara), txandatze-araubidean, 133,1 eurokoa hilean (BEZa barne).
- Arratsaldeetako abonatuaren prezio publikoa (15:00etatik 22:00etara), txandatze-araubidean, 108,9 eurokoa hilean (BEZa barne).

ABONATUAREN TXARTELAREN  
PREZIO PUBLIKOA (EDO EZARTZEN

**PRIMERO.-** Establecer los precios públicos por la prestación de los servicios a desarrollar en el aparcamiento Manuel Gainza, cuyas cuantías serán las siguientes:

PRECIOS PÚBLICOS ROTACIÓN:

- Tarifa ordinaria de 09:30 a 20:00 a razón de 0,02 € cada minuto (IVA incluido), en múltiplos de 0,05 €.
- Tarifa reducida de 00:00 a 09:30 y de 20:00 a 23:59 a razón de 0,00625 € cada minuto (IVA incluido), en múltiplos de 0,05 €.

Resultando un máximo diario de 17,65 €/jornada (IVA incluido).

PRECIOS PÚBLICOS ABONOS:

- Precios público de abonado mensual para residentes planta -3 a razón de 84,7 €/mes (IVA incluido).
- Precios público de abono diurno (08:00 a 20:00) en régimen de rotación 181,5 €/mes (IVA incluido).
- Precios público de abono nocturno (20:00 a 08:00) en régimen de rotación 127,05 €/mes (IVA incluido).
- Precios público de abono de mañana (8:00 a 15:00) en régimen de rotación 133,1 €/mes (IVA incluido).
- Precios público de abono de tarde (15:00 a 22:00) en régimen de rotación 108,9 €/mes (IVA incluido).

PRECIO PÚBLICO TARJETA

DEN SARBIDE-SISTEMARENA):

- Abonatuaren txartela edo ezartzen den sarbide-sistema egitea/berritzea: 3,00 € (BEZa barne).

APARKALEKUAN ZERBITZU BERRIAK EMATEAGATIKO ETA GAUR EGUN DAUDENAK ALDATZEAGATIKO BESTE PREZIO PUBLIKO POSIBLE BATZUK:

Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren, Toki Ogasunei buruzkoaren, 50.1. artikuluan ezarritakoaren babesean, Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzen zaio aipatutako aparkalekuan etorkizunean eman daitezkeen beste zerbitzu batzuegatik ordaindu beharreko zerbitzu publikoak ezartzea, bai eta gaur egun daudenak aldatzea ere.

Dagokion erabakia onesteko, Azpiegitura eta Zerbitzuen Arloak bere proposamenak igorriko ditu, ziurtagiri egokiekin, Diruzaintza Arlori. Arlo horrek txosten teknikoa egingo du, gutxienez zerbitzuaren edo jardueraren kostuaren estaldura justifikatzen duena, eta gero Gobernu Batzarrari txostena eta onepen proposamena aurkeztuko dizkio.

Tokiko Gobernu Batzarrak prezio publikoak arestian adierazitako mugaren azpitik jarri ahalko ditu, hala gomendatzen duten arrazoi sozialak, ongintzazkoak, kulturalak edo interes publikokoak badaude. Kasu honetan, Diruzaintza Arloari igortzen zaion proposamenak, interes orokor hori justifikatzeaz gain, frogatu egin beharko du aurrekontuan dirua dagoela ateratzen den aldea estaltzeko, baldin balego.

ABONADO (O SISTEMA DE ACCESO QUE SE ESTABLEZCA):

- Expedición/renovación de tarjeta de abonados o sistema de acceso que se establezca: 3,00 € (IVA incluido).

OTROS POSIBLES PRECIOS PÚBLICOS POR NUEVOS SERVICIOS A PRESTAR EN EL APARCAMIENTO Y POR MODIFICACIÓN DE LOS EXISTENTES:

Al amparo de lo previsto en el artículo 50.1 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, se delega en la Junta de Gobierno Local el establecimiento de nuevos precios públicos por otros servicios que puedan prestarse en el futuro en el citado aparcamiento, así como la modificación de los existentes.

Para la aprobación del correspondiente acuerdo el Área de Infraestructura y Servicios remitirá sus propuestas, junto con la documentación justificativa correspondiente, al Área de Tesorería, quien, previa emisión del informe técnico económico que justifique la cobertura como mínimo del coste del servicio o actividad, elevará a la Junta de Gobierno el informe y la propuesta de aprobación.

Cuando existan razones sociales, benéficas, culturales o de interés público que así lo aconsejen, la Junta de Gobierno Local podrá fijar precios públicos por debajo del límite indicado anteriormente. En este caso, la propuesta que se remita al Área de Tesorería, además de justificar la concurrencia de dicho interés general, deberá acreditar la consignación de dotación presupuestaria para la cobertura de la diferencia resultante si la hubiere.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**SEGUNDO.-** Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**HIRUGARRENA.-** Prezio publiko horiek onesteak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta indarrean jarraituko dute aldatzeko edo indargabetzeko erabaki arte.

**TERCERO.-** La aprobación de los precios públicos surtirá efectos a partir del día siguiente a su publicación y los mismos seguirán en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

**LAUGARRENA.-** Prezio publikoak arautzen dituen Erabakiaren eranskinetako F) epigrafean jasoko dira zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak. Udaltzatzen 2006ko irailaren 29ko bilkuran onetsi zuen erabaki hori, eta 2011-01-28ko, 2018-03-28ko eta 2019-11-28ko erabakien bidez aldatu zen.

**CUARTO.-** Estos precios quedan incorporados como Epígrafe F) al anexo del Acuerdo Regulador de los Precios Públicos por la prestación de servicios o realización de actividades aprobado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 29 de septiembre de 2006, y modificado por acuerdos del 28/01/2011, el 28/03/2018 y el 28/11/2019.

#### **PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Ignacio Uriarte  
Ibon Rodríguez  
Eduardo Andrade  
Paula Amieva  
Carmen Díaz

#### **ZUZENKETEN BOZKETA/VOTACIÓN ENMIENDAS**

<b>ERREGISTRO ZKIA.</b>	<b>PROPOSAMEN TALDEA GRUPO PROPONENTE</b>	<b>BAI SI</b>	<b>EZ NO</b>	<b>ABSTENZIOA ABSTENCIÓN</b>
28018 / 1	Partido Popular	7 PP, E.P.	13 PNV,PSE-EE	4 EH Bildu
28018 / 2	Partido Popular	7 PP, E.P.	13 PNV,PSE-EE	4 EH Bildu
28018 / 3	Partido Popular	7 PP, E.P.	13 PNV,PSE-EE	4 EH Bildu
28018 / 4	Partido Popular	7 PP, E.P.	13 PNV,PSE-EE	4 EH Bildu
28018 / 5	Partido Popular	7 PP, E.P.	17 PNV, EH Bildu, PSE-EE	-

28018 / 6	Partido Popular	7 PP, E.P.	13 PNV,PSE-EE	4 EH Bildu
28018 / 7	Partido Popular	7 PP, E.P.	13 PNV,PSE-EE	4 EH Bildu
28018 / 8	Partido Popular	7 PP, E.P.	13 PNV,PSE-EE	4 EH Bildu
28018 / 9	Partido Popular	11 PP, EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	-
28081	EH Bildu	6 EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	5 PP
28082	EH Bildu	11 PP, EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	-

### **PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**

BAI/SI: 13 (PNV, PSE-EE)

EZ/NO: 9 (PP, EH Bildu)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 2 (Elkarrekin Podemos)

**124.- OREKA EKONOMIKOA BERREZARTZEKO ESKAERA EZESTE, HONAKO KONTRATU HONI DAGOKIOEZ: OBRA PUBLIKOAREN EMAKIDAKONTRATUA, GETXOKO UDALERRIKO ROMO ETA AREETA AUZOETAN IBILGAILUENTZAKO LURRAZPIKO BI APARKALEKU ERAIKITZEKO ETA USTIATZEKO.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Egitatezko Aurrekariak  
Lehenengoa.- Udalak, 2001eko irailaren 28an egin osoko bilkuran, SPS ABEEri (Sarkis, S.A., Promociones Inmobiliarias Alavesas, S.A. eta Saba Aparcamientos, S.A.) obra publikoaren emakida

**124.- DESESTIMACIÓN DE LA SOLICITUD DEL RESTABLECIMIENTO DEL EQUILIBRIO ECONÓMICO DEL CONTRATO DE CONCESIÓN DE OBRA PÚBLICA QUE TIENE POR OBJETO LA CONSTRUCCIÓN Y SUBSIGUIENTE EXPLOTACIÓN DE DOS ESTACIONAMIENTOS SUBTERRÁNEOS PARA VEHÍCULOS AUTOMÓVILES EN LOS BARRIOS DE ROMO Y LAS ARENAS DEL MUNICIPIO DE GETXO.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Antecedentes de Hecho  
Primero.- El Pleno Municipal, con fecha 28 de septiembre de 2001, acuerda adjudicar a la U.T.E. SPS (Sarkis, S.A., Promociones Inmobiliarias Alavesas, S.A. y Saba Aparcamientos, S.A.) la



esleitzea erabaki zuen. Ondoko hau da obra publikoaren emakida horren xedea: getxoko udalerriko romo eta areeta auzoetan ibilgailuentzako lurrarazpiko bi aparkaleku eraikitzea eta ustiatzea; aparkatzeko partzelak erabiltzeko gehieneko epea (txandakako erabilerarako) berrogeita hamar urtekoa izango da. Epe hori estazionamendua zerbitzuan jartzen den egunetik aurrera hasiko da kontatzen; bestalde, egoiliarrek erabiltzeko partzelen emakidari dagokionez, partzelok baliatzeko epea BERROGEITA HAMAR URTEKOA izango da, aparkalekuetako obrak jasotzen diren egunetik aurrera kontatzen hasita.

Bigarrena.- 2003/10/03an, Udalaren Osoko Bilkurak SPS ABEE horri baimena eman zion, eratu beharreko sozietate berri bati administrazio-kontratua lagatzeko, eta Alkatetzari eskuordetu zitzaion kontratugapenaren baimena berrestea; azkenik, 7220/04 Dekretuaren bidez eman zen baimena. Lagapenaren ondorioz, kontratuaren titular berria aparcamientos de getxo en romo y las arenas (las mercedes) sociedad concesionaria, SL izeneko enpresa da.

Ondoren, espedientearen behar bezala izapideturik agertzen denez, emakidadunak idazkia aurkeztu zuen 2017/07/19an, eta bertan Getxoko Udalari jakinarazi zion hura osatzen zuten hiru erakundeek ("Euspen, SAU", "Kartera 2, SLU" eta "Saba Aparcamientos, SA" enpresek) akordio bat lortu zutela. Akordio horren arabera, "Kartera 2" eta "Euspen" izeneko enpresek zituzten partaidetza guztiak "Saba Aparcamientos, S.A." sozietateari eskualdatzen zitzaizkion, eta, horrenbestez, sozietate emakidadunaren bazkide bakarra izango zen.

concesión de obra pública que tiene por objeto la construcción y subsiguiente explotación de dos estacionamientos subterráneos para vehículos automóviles en los barrios de Romo y Las Arenas del municipio de Getxo, con un plazo máximo respecto a las parcelas destinadas a un uso rotatorio de cincuenta años, que comenzará a computarse a partir de la fecha de la puesta en servicio del estacionamiento y un plazo respecto a la concesión de las parcelas destinadas al uso de residentes de cincuenta años, contado a partir de la fecha de recepción de las obras de los estacionamientos.

Segundo.- Con fecha 3/10/2003, el Pleno Municipal autoriza a la mencionada U.T.E. SPS, la cesión del contrato administrativo a una nueva sociedad a constituir, delegándose en la Alcaldía la ratificación de la autorización de la cesión contractual, que finalmente se realiza por Decreto 7220/04. Como consecuencia de la cesión el nuevo titular del contrato es la mercantil "Aparcamientos de Getxo en Romo y Las Arenas (Las Mercedes) sociedad concesionaria, S.L."

Con posterioridad, tal y como consta debidamente diligenciado en el expediente, la citada concesionaria presentó escrito, de fecha 19/7/2017, en el que ponía en conocimiento del Ayuntamiento de Getxo que las tres entidades que la componían ("Euspen, SAU", "Kartera 2, SLU" y "Saba Aparcamientos, S.A.") habían alcanzado un acuerdo para la transmisión de la totalidad de las participaciones que en la misma poseían "Kartera 2" y "Euspen" a "Saba Aparcamientos, S.A.", pasando ésta a ser el socio único de la sociedad concesionaria.

Hirugarrena.- 2020/07/20an, Jordi Díez Díezek idazki bat aurkeztu zuen. Idazki horretan dio aparcamientos de getxo en romo y las arenas (las mercedes) sociedad concesionaria, SL enpresak erreferentziako kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko eskatzen duela, COVID-19 krisiak eragindako diru-sarreraren galeraren ondorioz.

Adierazi behar da idazkiaren aurkezleak ez duela inola ere egiaztatzen enpresaren ordezkartza.

Laugarrena.- Espedientean, egindako eskaerari buruzko txosten juridikoa dago, 2020/09/23koa.

#### Zuzenbideko oinarriak

I.- aplikatu beharreko kontratu-legeriari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen lehen xedapen iragankorraren arabera, indarrean jarri aurretik hasitako kontratazio-espedienteak aurreko araudiaren arabera arautuko dira.

Arestion adierazi denaren ondorioz, kontratu honi Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategina (APKLTB) onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Lege Dekretua aplikatu behar zaio.

Horrezaz gainera, honako lege-xedapen hauek ere aplikatu behar dira: urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartu zuena); apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen

Tercero.- El día 20/07/2020 D. Jordi Díez Díez presenta un escrito en el que la citada empresa aparcamientos de getxo en romo y las arenas (las mercedes) sociedad concesionaria, S.L. solicita el restablecimiento del equilibrio económico del contrato de referencia como consecuencia de la pérdida de ingresos derivada de la crisis de la COVID-19 y ello en aplicación del artículo 34 del Real Decreto Ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del COVID-19.

Procede indicar que el mencionado presentante no acredita de ninguna manera su representación de la empresa.

Cuarto.- Consta en el expediente informe jurídico de fecha 23/09/2020 acerca de la petición formulada.

#### Fundamentos de derecho

I.- respecto a la legislación contractual aplicable, en virtud de la Disposición Transitoria primera de la Ley 30/2007 de 30 de octubre de Contratos del Sector Público, los expedientes de contratación iniciados antes de la entrada en vigor de la misma se registrarán por la normativa anterior.

En consecuencia, al contrato del que tratamos se le ha de aplicar el R.D.L. 2/2000, de 16 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (TRLCAP).

Resultan además de aplicación el Real Decreto 1098/2001 de 12 de octubre (por el que se aprobó el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas); la Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; el R.D.L. 781/86 de

dituena; apirilaren 18ko 781/86 Errege Lege Dekretua, Toki Araubidearen Testu Bateratua onartzen duena; eta indarrean dauden gainerako legezadapenak.

Bestalde, aplikatzekoak dira aipatutako martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua, COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko presako neurriei buruzkoa, bai eta larrialdi horren ondorioz emandako eta hura aldatu duten estatu-mailako arauak ere.

III.- Ebazpen hau emateko eskumena Udalaren Osoko Bilkurari dagokio, erreferentziako espedientean kontratazio-organoa bera delako.

#### Erabaki-Proposamena

Lehenengoa: "Aparcamientos de Getxo en Romo y Las Arenas (Las Mercedes), Sociedad Concesionaria, SL" entitateak aurkeztutako oreka ekonomikoa berreskuratzeko eskaera ezestea, ondoko xedea duen obra publikorako emakidari dagokionez: Getxoko udalerriko Romo eta Areta auzoetan ibilgailuentzako lurrazpiko bi aparkaleku eraikitzea eta ustiatzea.

Bigarrena: Erabaki hau enpresa interesdunari jakinaraztea, laugarren aurrekarian aipatzen den txosten juridikoarekin batera.

Jakinaraztea baita KONTuhartzaitza eta Azpiegitura eta Zerbitzuak departamenduei ere.

18 de abril, por el que se aprobó el Texto Refundido de las Disposiciones Legales Vigentes en materia de Régimen Local y demás legislación concordante.

Por otro lado, resultan de aplicación el ya citado Real Decreto Ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del COVID-19, así como las sucesivas normas estatales dictadas como consecuencia de dicha emergencia y que han modificado aquélla.

III.- Resulta competente para adoptar la presente resolución el Pleno municipal, habida cuenta de que es el órgano de contratación en el expediente de referencia.

#### Propuesta de Acuerdo

Primero: Desestimar la solicitud de restablecimiento del equilibrio económico que, sobre la base del artículo 34 del Real Decreto Ley 8/2020, de 17 de marzo, plantea la entidad "Aparcamientos de Getxo en Romo y Las Arenas (Las Mercedes), Sociedad Concesionaria, S.L.", para el contrato de concesión de obra pública que tiene por objeto la construcción y subsiguiente explotación de dos estacionamientos subterráneos para vehículos automóviles en los barrios de Romo y Las Arenas del municipio de Getxo

Segundo: Notificar del presente acuerdo a la empresa interesada junto con copia del informe jurídico citado en el antecedente cuarto de esta resolución.

Dar así mismo traslado a los Departamentos municipales de Intervención y de Infraestructura y Servicios.

## PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Alvaro González  
Ignacio Uriarte

## BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 18 (PNV, PP, PSE-EE)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 6 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

125.- GETXO KIROLAKEN GASTU  
ARRUNTA FINANTZATZEKO  
KREDITU GEHIGARRIA ONESTEA,  
COVID19AK ERAGINDAKO  
OSASUNKRISIAREN ONDORIOZ  
DIRU-SARRERAK  
TXIKITZEAGATIK.

125.- APROBACIÓN DE CRÉDITO  
ADICIONAL PARA LA  
FINANCIACIÓN DE GASTO  
CORRIENTE DE GETXO KIROLAK  
DEBIDO A LA DISMINUCIÓN DE  
INGRESOS SUFRIDA COMO  
CONSECUENCIA DE LA CRISIS  
SANITARIA PROVOCADA POR EL  
COVID19.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Onestea, gehigarriko kreditua emateko espedientea, zk. 2020/25, zenbatekoa 1.500.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2020/25 de Crédito Adicional, por importe de 1.500.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## **Gastuak / Gastos:**

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
090/3400/4310001	Erakunde Autonomoei (Getxo Kirolak Erakunde Autonomoa) Organismoa Autónomos (Organismo Autónomo Getxo Kirolak)	1.500.000,00
<b>Guztira Total</b>		<b>1.500.000,00</b>

## **Finantzaketa / Financiación**

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	<b>1.500.000,00</b>
--	---------------------

## PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte  
Paula Amieva  
Gonzalo Ayo  
Ibon Rodríguez

Eduardo Andrade

### **BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 18 (PNV, PP, PSE-EE)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 6 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

### **LURRALDEA**

**126.- PROPOSAMENA, GETXOKO UDALAREN ETA "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA E.A." (VISESA) SOZIETATE PUBLIKOAREN ARTEAN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETA ONESTEA HITZARMENA 24.2-"ITURRIBARRI II" EGIKARITZE UNITATEAN ALOKAIRUAN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA SUSTATZEKO EGIN ZELA.**

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengo ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA: Getxoko Udalak eta "Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (Visesa)"k sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa onartzea, hitzarmena 24-2 "Iturribarri-ii" egikaritze unitatean alokairuan babes publikoko etxebizitza sustatzeko egin zela, ebazpen honen eranskinean ezarritako terminoetan.

BIGARRENA: Ebazpen honen berri ematea VISESAri, ondorio egokietarako eta adieraziko zaio udal honi jakinarazi beharko dizkiola aipatutako hitzarmenaldaketak barne hartzen dituen eskualdaketak; halaber, eskuratzailerak berriaz onartu eta subrogatu beharko ditu sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren baldintzak.

HIRUGARRENA: Udaleko Kontu Hartzaitzari eta Diruzaintzari

### **TERRITORIO**

**126.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y LA SOCIEDAD PÚBLICA "VISESA Y SUELO DE EUSKADI S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA E.A."(VISESA), PARA LA PROMOCIÓN DE VIVIENDA DE PROTECCIÓN PÚBLICA EN ALQUILER EN LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 24.2-"ITURRIBARRI.II".**

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

PRIMERO: Aprobar la modificación del convenio de colaboración suscrito entre el Ayuntamiento de Getxo y la sociedad pública "Vivienda y Suelo de Euskadi S.A." (VISESA), para la promoción de vivienda de protección pública en alquiler en la unidad de ejecución 24.2 "Iturribarri-II", en los términos expresados en el anexo de la presente resolución.

SEGUNDO: Notificar a los efectos oportunos la presente resolución a VISESA con indicación de que deberá comunicar a este Ayuntamiento las transmisiones que la citada modificación convenial ampara con expresa aceptación y subrogación por parte del adquirente de las condiciones del Convenio de Colaboración suscrito.

TERCERO: Dar traslado de la presente resolución a Intervención y Tesorería

ebazpen hau jakinaraziko zaio. municipal.

### PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Alvaro González  
Carolina Uribe  
Carmen Díaz  
Nerea Guijarrubia  
Ignacio Uriarte

### BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 13 (PNV, PSE-EE)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

11:15ean, alkateordeak osoko bilkura eten du, bilkura-aretoa aireztatu ahal izateko.

Siendo las 11:15 horas la vicealcaldesa suspende el pleno para que se pueda airear el salón de sesiones.

11:23an ekin zaio berriro bilkurari.

Siendo las 11:23 horas se reanuda la sesión.

### 127.- "MANUEL GAINZA" APARKALEKUKO BARNEARAUBIDEKO ARAUDIA HASIERA BATEAN ONESTEA.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Hasiera batean onetsiko da "Manuel Gainza" aparkalekuko barnearaubideko araudia; horren bidez, Manuel Gainza lurpeko aparkalekuaren erabilera, gozamina, funtzionamendua eta mantentzea arautzen dira. Hizpide dugun aparkalekua Getxoko udalerriko Algorta auzoko Telletxe, Bolue eta Euskal Herria kaleen elkargunean dago.

BIGARRENA.- Espedientea izapidetze publikoan eta interesatuen entzunaldi izapidetzean jartzea. Horretarako Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarkioholean argitaratuko da hogeita hamar egunean, eta epe horretan zehar erreklamazioak eta iradokizunak

### 127.- APROBACIÓN INICIAL DEL REGLAMENTO DE RÉGIMEN INTERNO DEL APARCAMIENTO "MANUEL GAINZA".

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar inicialmente el reglamento de régimen interno del aparcamiento "Manuel Gainza", regulador del régimen de uso, disfrute, funcionamiento y mantenimiento del aparcamiento subterráneo "Manuel Gainza", ubicado en el barrio de Algorta, en la confluencia de las calles Telletxe, Bolue y Euskal Herria, en el municipio de Getxo.

SEGUNDO.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados, mediante la inserción del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el Tablón de Anuncios de la casa Consistorial, por el plazo de treinta días, para la presentación de reclamaciones y

aurkeztu ahal izango dira.

sugerencias.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez bada aurkezten, araudi hau behin betiko onetsita geratuko da.

TERCERO.- En caso de que no se presente ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente aprobado este Reglamento.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

CUARTO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

### PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Janier Ocio  
Carolina Uribe  
Ibon Rodríguez  
Eduardo Andrade  
Carmen Díaz

### ZUZENKETEN BOZKETA/VOTACIÓN ENMIENDAS

ERREGISTRO ZKIA.	PROPOSAMEN TALDEA GRUPO PROPONENTE	BAI SI	EZ NO	ABSTENZIOA ABSTENCIÓN
28020 / 1	Partido Popular	7 PP, E.P.	13 PNV, PSE-EE	4 EH Bildu
28020 / 2	Partido Popular	11 PP, EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	-
28020 / 3	Partido Popular	7 PP, E.P.	13 PNV, PSE-EE	4 EH Bildu
28020 / 4	Partido Popular	11 PP, EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	-
28020 / 5	Partido Popular	9 PP, EH Bildu	13 PNV, PSE-EE	2 E.P.
28020 / 6	Partido Popular	11 PP, EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	-
28020 / 7	Partido Popular	5 PP	13 PNV, PSE-EE	6 EH Bildu, E.P.
28020 / 8 a)	Partido Popular	5 PP	19 PNV, EH Bildu, PSE-EE	-

28020 / 8 b)		20 PNV, PP, PSE-EE, E.P.	-	4 EH Bildu
28020 / 9	Partido Popular	11 PP, EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	-
28020 /10	Partido Popular	5 PP	19 PNV, EH Bildu, PSE-EE, E.P.	-
28020 /11	Partido Popular	11 PP, EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	-
28077	EH Bildu	6 EH Bildu, E.P.	18 PNV, PP, PSE- EE	-
28078	EH Bildu	4 EH Bildu	13 PNV, PSE-EE	7 PP, E.P.
28079	EH Bildu	11 PP, EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	-
28099 / 1	E. Podemos	Aho batez Unanimitad	-	-
28099 / 2	E. Podemos	11 PP, EH Bildu, E.P.	13 PNV, PSE-EE	-
28099 / 3	E. Podemos	7 PP, E.P.	13 PNV, PSE-EE	4 EH Bildu

**PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**

BAI/SI: 13 (PNV, PSE-EE)

EZ/NO: 4 (EH Bildu)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 7 (PP, Elkarrekin Podemos)

**128.- XEHETASUN AZTERKETA  
BEHINBETIKO ONESTEA, NEGURI  
ETORBIDEKO 1. ZENBAKIKO  
LURZATIRAKO.**

**128.- APROBACIÓN DEFINITIVA  
DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA  
LA PARCELA SITA EN EL N° 1 DE  
LA AVDA. DE NEGURI.**



Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Behin-betiko onestea Alex Carrascal Urquidi jaunak EKIBEGI S. COOPen izenean eta ordezkartzen aurkeztutako 9730/2020 xehetasun azterketa, Neguri Etorbideko 1. zenbakiko lurzatirako (11.-"Neguri" banaketa eremua), Tandem Arkitektura Hirigintza Bulegoa SLPk idatzia.

Xehetasun azterketaren helburua lurzatian lerroakdurak eta sestrak definitzea da. Hala, eraikin berrien integrazioa bere inguruko hirigunean nolakoa izango den definituko da. Hori guztia indarrean dagoen hiri-antolamenduko plan orokorrari buruzko hirigintza arauen 7.1.3. artikularekin bat etorritz.

Hasierako onarepenea ohartarazitako ñabardurak kontuan izango dira.

BIGARRENA.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesdunei jakinaraziko zaie, jar ditzaketan errekurtsioak azalduz.

HIRUGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari erabaki horiek egikaritzeko beharrezkoak diren nahi adina ebazpen hartzeko ahalmena ematea.

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle que, bajo el nº 9730/2020, presenta D. Alex Carrascal Urquidi, en nombre y representación de EKIBEGI, S. COOP., para la parcela sita en el nº 1 de la Avda. de Neguri (Area de Reparto nº 11- "Neguri"), redactado por Tandem Arkitektura Hirigintza Bulegoa, S.L.P.

El objeto del Estudio de Detalle aportado es la fijación de las alineaciones y rasantes de la parcela, con el fin de definir la integración de la nueva edificación, todo ello de acuerdo con el artículo 7.1.3 de las Normas urbanísticas del Plan General de Ordenación Urbana vigente.

Esta aprobación se realiza con las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

## **PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Íñigo Urkitza  
Nerea Gujarrubia

## **BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 18 (PNV, PP, PSE-EE)

EZ/NO: 4 (EH Bildu)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 2 (Elkarrekin Podemos)

## HERRITARGOA

### 129.- UDALTZAINGOAREN ERREGELAMENDUA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Herritargoko Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Ezetsiko dira Getxoko Udaltzaingoaren Araudia hasiera batean onesteko erabakiaren aurka jarritako alegazioak; zehazki, honako hauek jarri dituzte alegazioak: Getxoko Udaleko Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Sindikatuak eta Getxoko Udaleko Comisiones Obreras sindikatuak. Hori guztia, bat etorritz alegazioei erantzuteko egindako txosten juridikoarekin, zeina errekurtsogileei helaraziko baitzaie, erabaki honen jakinarazpenarekin batera.

BIGARRENA.- Behin betiko onestea Udaltzaingoaren Araudia, Udal honek hasiera batean, 2020ko uztailaren 30eko Ohiko Osoko Bilkuran, onetsi zuen modu berean.

HIRUGARRENA.- Udaltzaingoaren Araudia behin betiko onesteko erabakia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta horren testu osoa jasoko da, bat etorritz apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 70.2. artikuluan ezarritakoarekin. Udaleko egoitza elektronikoan edo Gardentasun Atarian ere argitaratuko da.

## PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Keltse Eiguren  
Paula Amieva  
Gonzalo Ayo  
Ibon Rodríguez  
Eduardo Andrade

## CIUDADANÍA

### 129.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL REGLAMENTO DE LA POLICÍA LOCAL.

A propuesta de la Comisión Informativa de Ciudadanía por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Desestimar las alegaciones contra el acuerdo de aprobación inicial del Reglamento de la Policía Local, formuladas por las secciones sindicales en el Ayuntamiento de Getxo del Sindicato Vasco de Policía y Emergencias (S.V.P.E.), y Comisiones Obreras (CCOO), de conformidad con el informe jurídico emitido para dar contestación a las mismas, del cual se dará traslado a los recurrentes junto con la notificación del presente acuerdo.

SEGUNDO.- Aprobar definitivamente el Reglamento de la Policía Local en los mismos términos en que fue aprobado inicialmente por el Pleno de este Ayuntamiento en sesión ordinaria celebrada el 30 de julio de 2020.

TERCERO.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva del Reglamento de la policía Local con el texto íntegro del mismo, en el Boletín Oficial de Bizkaia, de conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, así como en la sede electrónica o Portal de Transparencia del Ayuntamiento.

Ignacio Uriarte

### **BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 13 (PNV, PSE-EE)  
EZ/NO: 6 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)  
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (PP)

### **UDAL ORGANOEEN KONTROLA**

#### **ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK**

**130.- BILBOKO**  
**ADMINISTRAZIOAREKIKO**  
**AUZIEN 4. EPAITEGIAREN**  
**IRAILAREN 2KO 28/2020**  
**DEKRETUAREN KONTU-EMATEA,**  
**266/2019 PROZEDURA ARRUNTARI**  
**DAGOKIONA.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Bilboko Administrazioarekiko Auzien 4 zenbakiko Epaitegiko Justizia Administrazioaren letratuaren irailaren 2ko 28/2020 Dekretuaren jakitun egon. Dekretu horren bidez, amaitutzat jotzen da Ignacio Robles Fernández jaunak 2019ko ekainaren 28ko osoko bilkurako 96. eta 97. zenbakietako erabakien aurka jarritako errekurtsioa, eta irmo bihurtu da.

### **PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Keltse Eiguren

Paula Amievak udalbatza aretoa utzi du.

**131.- UDAL-DIRUZAINZAREN**  
**HIRUHILEKO TXOSTENAREN**  
**BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN**

### **CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN**

#### **ORGANIZACIÓN Y CUENTAS**

**130.- DACIÓN DE CUENTA DEL**  
**DECRETO 28/2020, DE 2 DE**  
**SEPTIEMBRE, DEL JUZGADO DE**  
**LO CONTENCIOSO**  
**ADMINISTRATIVO N° 4 DE**  
**BILBAO RECAÍDO EN EL**  
**PROCEDIMIENTO ORDINARIO**  
**266/2019**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Quedaron enterados del Decreto 28/2020, de 2 de septiembre, de la Letrada de la Administración de Justicia del Juzgado de lo Contencioso-administrativo nº 4 de Bilbao por el que se declara terminado por desistimiento el recurso interpuesto por don Ignacio Robles Fernández contra los Acuerdos plenarios de la sesión celebrada el 28 de junio de 2019 nº 96 y nº 97, y que ha alcanzado el carácter de firme.

**131.- DACIÓN DE CUENTA DEL**  
**INFORME TRIMESTRAL DE**  
**TESORERIA EN CUMPLIMIENTO**

**LAUGARREN ARTIKULUAN XEDATUTAKOA BETE BEHARREZ (2020KO 2. HIRUHILEKOA).**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

TRIM 02/2020 Diruzaintzako Txostenaren edukiaren jakitun egon; txosten hori betebeharrak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzkoa da.

**DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO CUARTO DE LA LEY 15/2010 (2º TRIMESTRE DE 2020)**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas

Quedaron enterados del contenido del Informe de Tesorería TRIM 02/2020 sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de obligaciones.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Ignacio Uriarte

**132. UDAL-DIRUZAINZAREN HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARREN ARTIKULUAN XEDATUTAKOA BETE BEHARREZ (2020KO 3. HIRUHILEKOA).**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

TRIM 03/2020 Diruzaintzako Txostenaren edukiaren jakitun egon; txosten hori betebeharrak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzkoa da.

**132.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME TRIMESTRAL DE TESORERIA EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO CUARTO DE LA LEY 15/2010 (3º TRIMESTRE DE 2020)**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas

Quedaron enterados del contenido del Informe de Tesorería TRIM 03/2020 sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de obligaciones.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Ignacio Uriarte

**133.- UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN 2020KO 3. HIRUHILEKOKO AURREKONTUAREN BURUTZAPENAREN BERRI EMATEA.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

2020ko 3. hiruhilekoari dagokion Aurrekontu Orokorraren Exekuzio-egoerak jakitun egon, zeinari buruzko dokumentazioa aipaturiko

**133.- DACIÓN DE CUENTA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA DEL AYUNTAMIENTO Y DE LOS ORGANISMOS AUTONOMOS, 3ª TRIMESTRE 2020.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Quedaron enterados de los Estados de Ejecución del Presupuesto General, correspondientes al 3º trimestre del 2020, cuya documentación consta en el

espedientean jasota dagoen.

expediente de referencia.

### PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte

Paula Amieva bilkurara itzuli da berriz.

Se reincorpora a la sesión Paula Amieva.

#### 134.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: AURREKONTUA GEHIGARRIZKO KREDITUZ BALIATUTA ALDARAZTEKOAK.

#### 134.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas

Kreditu gehigarrien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

2627//2020 zenbakidun Dekretua 48.500,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2020/17. Zabortegiko aldagelen eraikina desgasifikatzeko lanak.

Decreto nº 2627//2020 por un importe de 48.500,00 euros. Crédito adicional 2020/17. Desgasificación del edificio de los vestuarios en área vertedero.

2759//2020 zenbakidun Dekretua 105.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2020/18. Hainbat jarduera ikastetxeetan.

Decreto nº 2759//2020 por un importe de 105.000,00 euros. Crédito adicional 2020/18. Diversas actuaciones en centros educativos.

2762//2020 zenbakidun Dekretua 206.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2020/19. "9205 Informatika" programako inbertsioak finantzatzea.

Decreto nº 2762//2020 por un importe de 206.000,00 euros. Crédito adicional 2020/19. Financiación de inversiones del programa "9205 Informática".

2824//2020 zenbakidun Dekretua 15.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2020/20. Diruzaintza-departamenturako altzari desberdineko erosketak.

Decreto nº 2824//2020 por un importe de 15.000,00 euros. Crédito adicional 2020/20. Adquisición de diverso mobiliario para el departamento de Tesorería.

3152//2020 zenbakidun Dekretua 75.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2020/21. NBE-k eta

Decreto nº 3152//2020 por un importe de 75.000,00 euros. Crédito adicional 2020/21. Adquisición de EPIs y diverso

hainbat prebentzio-material erostea, COVID 19 sistemak eragindako osasun-alarbaren ondorioz.

material de prevención relacionado con la alarma sanitaria provocada por el COVID 19.

3286//2020 zenbakidun Dekretua 100.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2020/22. Aldian behingoak ez diren udal-laguntzak.

Decreto nº 3286//2020 por un importe de 100.000,00 euros. Crédito adicional 2020/22. Ayudas municipales no periódicas.

3357//2020 zenbakidun Dekretua 141.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2020/23. Kirol-instalazioetan inbertitzearekin lotutako hainbat jarduera.

Decreto nº 3357//2020 por un importe de 141.000,00 euros. Crédito adicional 2020/23. Diversas actuaciones relacionadas con inversión en instalaciones deportivas.

### PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte  
Ibon Rodríguez

#### 135.- TRANSFERENTZIAK ERABILIZ AURREKONTUAK ALDATZEKO BI DEKRETUREN KONTU-EMATEA.

#### 135.- DACIÓN DE CUENTA DE DOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas

Jakitun egon transferentzien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakintzat ematea:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

3470/2020 zenbakidun Dekretua 6.300,00 euroko zenbatekoarekin. 2020/08 kreditu-transferentzia. Getxoko Jabekuntza Eskolarako altzariak erostea.

Decreto nº 3470/2020 por un importe de 6.300,00 euros. Transferencia de crédito 2020/08. Adquisición de mobiliario para la Escuela de Empoderamiento de Getxo.

3643/2020 zenbakidun Dekretua 47.199,99 euroko zenbatekoarekin. 2020/09 kreditu-transferentzia. Udaltzaingoaren Atestatuen Unitaterako furgoneta motako ibilgailu bat erostea.

Decreto nº 3643/2020 por un importe de 47.199,99 euros. Transferencia de crédito 2020/09. Adquisición de un vehículo tipo furgoneta para la Unidad de Atestados de la Policía Local.

#### 136.- KONTUHARTZAILTZAREN 18/2020 TXOSTENAREN BERRI

#### 136.- DACION DE CUENTA DEL INFORME DE INTERVENCIÓN

**EMATEA. FINANTZA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKOA DA TXOSTEN HORI, ETA HONEKIN DAGO LOTUTA: AURREKONTUAREN ALDAKETAK FINANTZATZEKO ASMOZ 2019KO UDAL-AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREKIN LORTUTAKO ALTXORTEGIKO GELDIKINA 2020KO ALDIAN (LEHENENGO, BIGARREN ETA HIRUGARREN HIRUHILEKOETAN) GASTU OROKORRETARAKO ERABILTZEA.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

1.- Udaleko Kontu-hartzaitzak finantza iraunkortasunari buruz egindako urriaren 16ko 18/2020 txostenaren edukiaren jakitun egon diruzaintzako geldikina erabiltzeari dagokionez, 2020an (lehenengo, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan), aurrekontuko aldaketak finantzatzeko.

